

**ZAHAR HITZ, ZUHUR HITZ:
ZUHUR HITZ BILDUMA BERRIA,
IPARRALDEKO BERTSULARIEN
LAGUNEK ESKAIÑA**

Lino Akesolo

Argitara berria da euskerazko esaera zarrez osatutako bilduma berri au. Oraingo argitaraldi au bertsolarien eskutik datorkigu eta bertsolarien eskuetan kultur-tresnatzat jarteko egiña dirudi.

Norbaitek esan zuen bein bertsolarien saio eta txapelketetan esaera zarren muiña gaitzat ematea ez litzatekela nozik bein gaizki etorriko. Nik ez dakit gai-jartzailleek norbait orren esanari inolazko jaramonik egin dioten ala ez. Oraingoan bertsolariak berak datoz emen gure erriaren jakinduria, euskerazko esaera zarretan ageri dana, berek ezagutu eta guztioi ezaguerazi nairik, beren bertsoen aberasgarri eta guzion atsegingarri izan daitezten. Asmo ori izan dutelakoan nago. Ala nai ola ere, ongi etorri egin bear diogu liburu berrioni. Eskupeko eder au egin digutenak Iparraldeko bost bertsolari dira. J. L. Laka, E. Alkat, F. Mihura, I. Etxeandi eta M. Lekuona.

Lafitte, Iparaldeko euskal-idazle guztien aitona eta esku-emaille dugunak, liburuari egin dion aintzin-solasean dioenez, “gure eskerrak artze dituzte. Iduri zaiote errankizun horiek gure herri-literaturako zati bat direla. Ez dituzte ahanterat utzi nahi”. Ia ori bera esan dute bildumaren egilleek atariatarian: orretarako argitaratu dutela, “gure arbasoen zuhurtzia /ez dadin izan ahantzia”. Bertsoz esana.

Bertso orretan au ere esan nai izan digute, noski: alegia, gogoan izan dutela antziñako esaera-biltzailleen lana, eta emen eskaini digutena guztietarik bildu eta jaso dutela, amaseigarren mendeko bizkaierako esaera zarretarik asi, eta Garibay, Oihenarte, Bela, Salgitze, eta oraintsuagoko biltzailleen bildumetaraiño. Guztien jakinduria, eta guztien oiartzuna entzungo dugu emen.

Ezaguna da gure mende onetan J. Urkijo jaunak egindako lana. Euskal-esaera zar guztien bilduma eman nai izan zuen. Egiteko orretan sartu zan, baiña ez zuen bere asmoa burutu. Beraz, olako bilduma osorik gabe gaude oraindio. Eta “ogirik ez danean, artoa ere on” baita, bilduma osorik ez dugunean, on izango dugu sorta on bat izatea beinik bein, eta bertsolarien lagu-

nek eskaiñi diguten bezalako sorta oni, esker onezko arrera egin bearrean gaude.

Gaurko bulduma onen berri ematean, ez gera emen euskal-esaeren jatorria, noiz eta nola sortuak diran argitzen nekatuko. Askoren sorrera aspaldietako mendeen illunpean dago. Alako batean, illunpetik argitara datoz. Paperera aldatu dira eta liburutanxe agertu ere bai. Noiz? Amaseigarren mendean. Antxiñako kanta zarrenekin batera, erri-literaturaren emaitzik zarrenak ditugula agerian dago. Amaseigarren mendea da gure literatura idatzia sortu zaneke mendea. Mende berekoak eta literatura zar orrekin baterakoak dira euskal-atsotitzen bildumen asikiñak ere. Errian sortu eta erroak egindakoak baitira, antziñagokoak dira, izan. Baiña guk ez ditugu ezagutu mende orretako bildumetan ikusi arte. Eta bat edo beste, erderazko bildumetan lenago, euskazkoetan baiño. *San Simon eta San Juda, negua eldu da*, orain ain entzuna eta kantatua dugun esaera, erderazko bilduma batean agertua da beste iñon baiño lenago. Badirudi ez ziotela antzik artu, ez zutela ulertu, eta erdalduntzat artu zutela. Eta orregatik edo, sartu zuten bilduma artan.

XVI ETA XVIIGARREN MENDEKO BILTZAILLEAK

Gure gaurko hitz zuhur biltzailleok, antziñako mendetaraño murgildu diran ezker, beren bilduma egiteko, guk ere jo dezagun mende aietara. Antziñakoen lanari egin dezaiozun gain-begiratutxo bat, bederen, ea gure literatur-arlotxo au ezagutuagotzen laguntzen digun.

Amaseigarren mendekoak iru-lau bilduma ezagutzen ditugu: bat orduan argitaratua, beste bi, eskuz idatziak, eta joan dan menderarte argitaragabeak. Argitaratua Iruñen, 596n agertua da, Pedro Porrallis Ambereskoaren etxean. Titulu au darama: *Refranes y Sentencias comunes declaradas en Romance con números sobre cada palabra para que se entiendan las dos lenguas*. Gaur ez gera ale baten ere jabe. Bat ezagutzen zan Alemanian, Darmstadt urian, Europako azkenengo gerratean errea edo galdua. Gero emango dugu berri zeatzagorik. Nor zuen bilduma onek egille? Askoren iritzian, Garibay; baiña ez dakigu gauza ziurrik. Bizkai aldeko euskera du, nonbait ere.

Beste bilduma biek, bai, Esteban Garibai dute biltzaille. Bi siglen pean Madrilgo Real Academia de la Historia dalakoak gordetzen zituen, eskuz idatzita, baiña, bata, joan dan mendean norbaitek F. Michel frantsesari emanda, galdua edo saldua gelditu da. Bi bildumaok, 1596koa eta Gaibai andiarena, ez daude osorik gaur, moztuta etorri dira gure eskuetara.

Urrengo biltzailleean artean Lope Martínez de Isasti sartu bearkeo dugu, XVIIgarren mendearan barruan. Bere *Compendio Historial de Guipuzcoa* liburuan euskal-esaera zarrezko sortatxo bati leku eman zion: guztitara, 86. Ez da gauza andirik, baiña beintzat berak bilduak dituela ematen dute. Sei-zazpik 1596koen mami bera dute, Gipuzkoan esaten ziran bezala, nonbait, gipuzkeraz jantzita. Beste batzuk gero aipatuko ditugun Oihenarte

eta Salgitzeko jaunaren bildumetan Zuberoko euskararen oiartzuna dute. Ezagun da iturri beretik, erriaren aotik jasoak zituztela irurek ere. Baiña Isastik beste bieie aurrea artu ziela argi samar dagoela esan bearke.

Euskal-esaera zarren biltzailletzat, Gustave Brunet-ek nola alako izena jarri zion Voltaire dalako bati. Voltaire au frantses, español eta euskera ikas-teko liburu baten egille da, iru izkuntzok bata bestearen ondoan dituela elkar-izketaz osotutako liburua, eta 1620tik gora, izen batez edo bestez, sei bat argitaraldi izan ditu, eta berau ezagutzeko aukera ederra dugu gaur. Ikus 1972n *Anuario de Filología Vasca* “Julio de Urquijo”. Joan dan mendean Gustave Brunet idazleari gogoak eman zion liburu ortatik 78 esaera atera eta euskal-esaeratzat eman bear zituela. Bruneten liburuak bi edo iru argitaraldi izan ditu 1845tik 1973ra: *Ancien proverbes basques et gascons* titulua-rekin.

Baiña Voltaire orren liburuko esaerak euskaldunak ote dira? Michelek aintzat artu bazituen ere, beste kritiko zorrotzago batzuek ezetz biribilla eman dute. Ez direla euskaldunak, frantsez testotik gaizki euskeraratuak baizik. Beraz, ez dutela merezi euskal-esaeren artean sartzerik. Mikoleta bilbotarraren esaera batek merezi ez duen bezala. Mikoletak, bere *Modo breve de aprender la lengua vizcaina* liburuan *La Celestina* liburutik artu zuen erdal esaera bat, eta gazkitxo euskeraratu, onela: Xateko onari edo deungeari iru bider edan. Askoz obeto eta jatorrago itzulita dator orixe berori 1596ko bilduman: Gaxtoto edo ondo jan, iru bider edan. Eta ez dogu esango erdaldun baizen euskaldun ez danik, gaur ere antzeko esaerak entzuten baitira euskaldunen aoetan.

Voltaire au baztertu arren, bada Iparraldean XVIIgarren mende orretan biltzaille oberik. Txikienetatik asita aipatuko ditugu: Bela eta Bertrand de Sauguis edo Zalgitzeko Jauna. Belak bildutakoak oso gitxi dira: 45 esaera. Gaur errez eskuratu eta irakurri ditzakegu, Mitxelena jaunak argitaraturik *Textos Arcaicos Vascos* liburuan. Aberatsagoa da Zalgitzeko Jaunaren bilduma: 205 esaera zar, guztitara: 1600 inguruan bilduak omen dira. Oihenarte andiaren paper artean Jaurgain-ek aurkitu ornen zituen gure mende onen asieran, eta Urkijo jaunak 1909n argitaratu, erderaraturik eta oar argitsuz orniturik. Gogoan izatekoa da len esan doguna: Isastik, Oihenartek eta Zalgitzeko Jaunak bildutakoek eta 1596koek esaera berdintsu asko dutela. Iturri berekoak, erriarenak, ziran nonbait. Berdintasun au nabarmen jarten saiatu da Urkijo jauna. Neronek ere kidetasuntxo aurkitu dut Zalgitzeko Jaunaren esaera batekin eta Markiñan gaur askotxo entzuten dan batekin. Zalgitzeko Jaunarena: Aho baino hoboro begi duk. Aita Lhande zanak adierazi zuenez, platerean jateko askotxo artu eta jan eziñik uzten duen aur edo norbaitengatik esaten ornen da ori. Markiñan onako au entzuten da gaur: “Begiak luzeago ditu esteak baiño”.

Mende bereko biltzailerik andiena euskal-literaturan oso ezaguna eta ospe andikoa da: Oihenarte Zuberotarra, kondairagille eta euskalzalze sutsua bera. Ez da orain aren istori-lana ez olerkari-lana aipatzeko unea. Bere bizian iru aldiz argitaratu zituen berak bildutako atsotitzak edo errefauak: guztiz, 706 atsotitz. Dana, 1657tik 1659ra. Joan dan mendean argitaratzai-

lle eta iruskin-egillerik asko izan du: Michel, Archu, Vinson, Haristoy eta abar. Gure mende onetan Oihenarten esku-idatzi geiago agertu da, eta aren atsotitzak ia bederatzireuneraño geitu dira. Eta gaur lan ederrak dauzkagu, berak sail onetan egindako lana errotikago ezagutzeko. Egilleak: J. Urkijo, Lafon, Mitxelena, Txillardegi eta abar. Urkijo Jaunak lenbiziko edizioaren fac-simile eman zigun RIEV-en eta gero edizio berezian, eta bere ikerketalana aurrera eramanez, Urkijo izan da Oihenarte atsotitzen kopurua ia bereratzireuneraño luzatu duena. Mitxelenak argitaratuko zuen Urkijoren azken-lana gai onetaz, 1967n, Urkijo Mintegiaren *Anuario de Filología Vasca* aldizkarian. Eta or dugu gaur dana, Txillardegik 1971n plazaratutako edizioan, Oihenarten *Atsotitzak eta Neurthitzak* liburuan sartuta.

Urkijo zanaren azken-lanak beste zer batzuk ere jarri ditu argitan, eta bat auxe: Oihenartek aurrekoen lanak ezagutu eta gondu zituela. Esaterako, 1596koa ere ezagutu zuen, eta guk orain ezagutzen duguna baiño osoagoa, ain zuzen. Orrela, 1596ko edizio zarra ogei esaera zar geiagoz aberasteko argibidea eman du. Garibai zarraren manuskritorik ez zuen eskuetan erabili, baina Porrallisek Iruñen egindako edizioa bai. Orrek argitu digu Oihenartek egindako lanaren beste berezitasun bat ere: alegia, ez zituela atsotitz guztiak berak errian bildu. Badirudi, an or emen, lankideak izan zituela. Eta bat baiño geiago ez ote zuen berak moldatu, ezagutzen zituen izkuntzetakoetatik euskeraratuta? Porrallisen ediziokoak moldatu zituenak ere olako euskeratzerik egin zuen, noski, eta ez askotan Oihenartek erakusten zuen trebetasunez. Ori egitea, trebeki eta jator egin ezker, ez diot nik iñori pekatutzat egotziko. Beste izkuntza nagusiek ere berdin egin dutela esango nuke nik.

XIXGARREN MENDEAN

Loraldi edo beintzat zabalkunde berria artuko dute euskal-esaera zarrek XIXgarren mendean. Orduan arako Etxepareren deia entzun zutela esan genezake: plazara aterateko, mundu guztira ibilteko deia. Orduan asten dira erderazko liburuetan burua agertzen. Madrilgo Academia de la Historia dalakoak, berak duen Garibairen manuskritoa aterako du, Garibai orren *Memorias* liburuarekin batera, eta Aizkibelen oar eta argibideekin. Michelek eta Archuk edizio berri bat aterako dute. Eta Michelek, 1857n bere liburu ospetsu batean sartuko du mordo bat. Gerorago beste zabaltzaille bat izango dute: Vinson. Guztia sortu da erri-jakintzaren alde egin dan giro beroari esker.

Michelentzat andia da errien esaera zarren garrantzia. Asko balio ornen dute erri baten gizabidea, oiturak eta gogoia ulertzeko, eta bai izkuntza baten gupil, maratilla eta gramatika-lege asko obeki ezagutzeko. Euskerazkoak ezin egokiagoak omen dira orretarako. Gure erri-literaturaren altxorrik ederrenetakoa ornen dira, eta aintzakotzat argitaratzen ditu eta bere *Le Pays Basque* liburuan zabaltzen.

Vinson-ek ez du iritzi berdiña: erri-jakintzari ez dio agur andirik egiten, beraz gure gure erri-jakintzaren aztarnok ere ez ditu aintzakotzat artzen. Ala

ere, bere *Folklore du Pays Basque* liburuan ez die beren lekutxoak ukatu. Liburu au, lenengoz 1883n argitara emana, Frantziak bere lekuan lekuko Folklorea ezagurazteko argitaratu zituen liburuetaio bat da, eta gure erri-literaturaren ezaugarritzat, egilleak euskaldunen esaera mordoa sartu zuen, eta ola ez du gutxi lagundu gure erri-literatur mota onen berri zabaltzen. Vinsonen iritziz, aipagarrienak, baliotsuenak, pellokeririk gutxien dutenak autatu eta eman ditu, bakoitza bere frantses itzulpenarekin. Bilketalanik ez du egin: Oihenarten liburutik hartu, besterik ez.

Euskaldunak, orraitio, ez zeuden lo. Mogel, Peru Abarka idatzi zuenak, beren garrantzia aitortu zien gure erri-esakunei, eta mordotxoa sartuko du liburu eder orretan. Mogelen esakunak errian bizi bizirik aurkitu zituenak dira. Baiña Peru Abarka ez zan plazara agertu 1880garren urte ingurura arte.

Iparraldean euskal idazle mordoa azalduko da gure erri-literatura mota au lantzen, bai zarrak argitaratu eta azalduz, eta bai berriak bilduz. Intxauspe, Duvoisin eta abar nabarmendu dira lan orretan. Almanaka, egutegi eta aldizkarietan gero ta leku geiago izango dute gure esaera zarrek.

Aldi berri bat sortuko zaie Van Eys holandarrak Alemanian Darmstadt uriko bibliotekan agertutako ale bakarretik 1596ko *Refranes y Sentencias* argitara eman zituenetik aurrera. Urrengo urtean, 1897n asita, Azkue andiak, berak sortutako Euskalzale astekarian, zatika zatika aterako zituen, Van Eys orrek egindako edizioa garestia zala-ta, euskaldunei esaera zarr aien ezagutza errazteko. Tarteka tarteka aterako ditu astekari orrek Bizkai-ko beste esaera batzuk, Aita Uriarte frantsiskotarrak bilduak ziralata, benetan esaera errikoi eta bizi-biziak. Van Eysek egindakotik artuta, beste argitaraldi bat izan zuten 1596ko *Refranes y Sentencias* oriek Bilbon, 1905n Astuitarren irarkolan, baiña bitxitasun onekin: Van Eysek argitaratutako guztiak sartu ditu, baiña lekuz aldatu. Ala 1596koan lenengo datorrena 26garren dakar; 28garrenetik asi da eta 513garrena dakar azken. Gaur, gaiñera, Julio Urkijok eta Txillardegi jaunak egindako edizioak ditugu. Baiña Darmstadt-eko alea erre edo galdua dan ezker, *La Gran Enciclopedia Vascan* daukagu ura obeki ezagutzeko aukera (L. G. Enciclopedia. Tomo X, 1975), Alfonso Irigoien jaunak an argitarutako fotokopian eta geigarrian.

Aldi onetan beste ateraldi bat egingo dute gure atsotitzek kanpo aldera, atzerrietan esaera-bildumatan sartuta.

Bi bilduma aipatu ditzakegu emen: bata España-ko erderazkoa, eta bestea, frantsesa. España-koak F. Sacristan idazlea du egille: bi tomotan dago, lenbiziko tomoa 1907koa eta bigarrena, 1912koa. Tomo geiago aterateko asmotan asi zan idazle ori, eta bigarrena Miguel Mir erdal-akademikoaren itzaurre ta guzti atera bear zuen: baiña Mir orren itzaurre gabe eta beste tomorik gabe gelditu zan. *Doctrinal de Juan del Pueblo* du titulua. Eta au guretzat jakingarriena: beste izkuntza askotako esaeren artean euskerazko mordoa sartu zuela. Idazle au ez zan euskalduna. Nork eman ote zion gure esaeren berri? Nor izan ote zuen laguntzaille? Iturri askotakoak ditu, baiña Oihenarten bildumatik artuak geienak.

Bigarrenak, Frantziakoak, zabalkunde andiagoa egin die, noski, gure

esaerei. Larousse mundu guztian ezaguna dala esan bearrik ez da, batez ere Iztegitintzan, eta mundu guztiko esaera zarrak biltzen dituen iztegia ere badu: *Dictionnaire des Proverbes, sentences et maximes*. Bibliographian, mundu guztiko biltzailen artean, euskerazkoentzat Oihenarte eta Brunet eman ditu. Oihenartenak O. baten ezaugarria daramate; baiña O. ori gabe-koak ere bilduma berekoak, Oihenarte orrenekoak dira. Eta tamalez, frantses utsean, euskerazko testorik gabe datoz. Nola nai ere, ez ote die gure esaerei aitormen ederra egin, mundu guztikoekin batean sartu dituanean? Bilduma biok ez dute gure esaeren kopurua ugaltu, baiña bei, beintzat, gure izena munduan zear adiarazi. Eta au ez da gauza utsa.

XXGARREN MENDEAN GURE EGUNAK ARTE

Gure mende au lengo esaeren ikertzaille eta berrien biltzaille leiatsua goa dala esan bear. Guztien izenak aipatu bearrik ez dago. Antxiñakoen billatzaille eta ikertzaillerik andiena nor dugu? Edozeiñek aitortu beariko du Julio Urkijo izan dugula. Lan ederrik egiña da sail onetan. *Los Refranes Vascos de Sauguis* (1909) izan zuen lenengoa. Gero euskerazko esaera guztien bilduma egiteko asmoari lotu zitzaion eta artan jarri zan eta El Refranero Vasco, T. I. aterako du (1919). *Los Refranes y Sentencias de 1596*, bigarren tomoa izanbearrekoa, RIEV-en argitaratu zuen ia guztia, baiña 1936ko gerratearen ondorioz, bukatu gabe gelditu zan. RIEV-etik aterata, orain bi tomo eder dauzkagu, Auñamendi-k argitaratuak, baiña 394garrenera baizik ez dira iristen. Urkijok ez ote zuen lan ori buruturik utzi? Ez ote da aren paper artean ezer geiago agertu? Oihenarten geigarri berria agertu izan dan bezala?

Billatzaille eta biltzaille berrien artean, ezin ditzazkegu bi bereziki aipatu gabe utzi: R. Ma. Azkue eta Aita Damaso Intza. Lenengoak, bere *Euskal-erriaren Yakintza*, irugarren tomoan gaur arteko bilketarik ugariena eman zigun: 2.936atsotitz. Iturri askotaz baliatu da. Lenagoko biltzailletarik asko artu du, baiña berak erriaren aotik entzundakorik geiago.

Aita Intzak bizi guztian ekin dio erriesaerak biltzen, eta *Euskera* aldizkarian eta *Zeruko Argia-n* sorta-sortaka ematen. Eta azkenez, tomo batean eman digu bere urte luzetako uzta. Euskaldun batek Euskalerriko txoko batean iñoiz egin duen bilketarik ugariena eta garbiena dugu Aita Inzak egindakoa. Naparroa bere erriari eta ango euskerari esku-erakutsirik eta omenik andiena egin dio liburu orrekin: 2.500 esaera zar. Eta erriz erri, bildu dituen bezala banandurik eman ditu. Esaera biltzaille guztien artean, nik uste, Aita Inzari zor zaio txapela.

Eta biltzaille andienen inguruan, zenbat biltzaille txiki izan diran, bakoitzak ekarri duenaz gure altxorra aberasten! Joan dan mendeko aiei, Mogel, Uriarte, Duvoisin, Haristoi eta beste ainbestei, gure mende onetan, zenbatek ez ote die jarraitu! Zamarripa, Landerretxe, Elissalde, Barbier, Larreko eta abar.

Aipatu diranetatik aipagarrienak, nere ustez, Landerretxe eta Elissalde.

Landerretzek pilla polita utzi digu *Euskera* aldizkariaren orrietan, 1925tik 1928ra. Berak errian entzundako *Erran zahar eta Errankizunak* dira: 365 erran zahar eta errankizun. Eta osoena, beteena, Elissalde *Gure Herria* aldizkarian ematen asi eta gero separatan argitaratua: 1025 Atsotitz, zuhur hitz eta erran zahar, antxiñakoetatik eta goerokoetatik autatuak. Ez da mor-do txarra.

ORAINGO ARGITARALDIA

ibillian ibillian, ba gatoz gaurko *Zahar hitz, Zuhur hitz* liburura. Bost bertsolarien eskutik datorrigu. Asmo berriaz egindako liburua. Erriarentzat, bereziki bertsolarientzat idatzirakoa...

Ez datoz, ez, jakintsu-zurrian, antxiñako bildumaren bat aurkesten edo argitzen. Baiña antziñako aieei ez diete musiniñik egin. Aietatik ere autaketa egin dute. Esaera berrien billa ibili diranik ere ez dirudi, asko beintzat. Aita Intza bezala. Baiña iñon bestek billatutakorik aurkitu badute, jakin dute bereizketa egiten, egokienak beren bildumaratzeko. Ez digute iturririk eman; ez digute esan non jaso edo aurkitu dituzten. Baiña geienek, jakiña, Euskalerrian dute jatorria. Iparraldean, batez ere. Bat baiño geiago mundu guztiko folkloretik artu eta euskal-moldean sartuak dirudite. Erri-jakintzak askotan ez du erri-mugarik. Erri bakoitzak edo izkuntza bakoitzak emango dio bere moldea. Gure auzoko erri batentzat, “donde menos piensa salta la liebre” dana, “gutxien uste dan lekuan erbia lo” izango da emen. Edota, “cada cual arrima el ascua a su sardina”, gure erria arrantzale erri izan arren, emen “bakoitzak bere opillari ikatza” egingo dugu; eta olaxe, aditzik gabe, tinko tinko, eta ain ederki. Ola egin ezkeru, edozein atsotitz, atzerrian jaioa izan arren, euskaldun jator billaka daiteke. Antziñako erromarrek “horno homini lupus” esan zuten. Euskaldunak, orri gordintasun piska bat kenduta, “atzerri, otserri”, esango du. Euskaldunarentzat ez da otso edozein gizon, atzerri-tarra eta etsai dana baizik. Nork daki non edo zein izkuntzatan jaioa dan esaera bakoitza.

Bilduma au egin dutenek Elissalde bereari ezarri zion aintzin-solaseko itzok gogoan dituztela esango nuke: “Segurki, langile hainitz bada, gu baino lehen, atsotiz, zuhur-hitz eta erran zaharren ondotik ibili denik; bainan guzien artean uzta ederra bildu badute, alde batetik hainitzek ez dakite uzta hori nun kausi eta bertetik langile horiek ez dute biltzeko guzia bildu. Primadera baxotxean lore berriak sortzen diren bezala, atsotitz eta zuhur-hitz berriak agertzen dire urthetik urtherat edo noizik noizerat. Ez dire lehengoak baino gehiago galtzerat utzi behar. Bertzalde, lehengoek berek ahotik ahorat joanez jauntzi berri bat hartu dute. Beren jauntzi berrian agertu nahi ditugu. Zuzen da naski”.

Atsotiz zarrik asko dator bertsularien lagunek egindako bilduma onetan; jantzi berritan datoztenak ez dira gutxi. Biltzailleok ez dute jakintsu uts eta zeatzegien lanik egin nai izan, eta ez jakintsuentzat ere. Erriaren jakinduria erriari eskuratu nai izan diote, oraindik euskaldun dan eta euskaldun

iraun nai luken erriari, euskeraz jantzitako erri-jakintzaren tanta batzuk ixuri beste asmorik gabe agertu dira. Euskaldunak ere, menderen mendetan, bere bizitzako lege batzuk esaera tinko laburretan mamitu ditu. Lekuan lekuan izen asko artu dituzten esaerak dira, Lafittek aintzin-solasean esan duen bezala: Esaera zar, hitz zuhur, hitz zahar, erran zahar, elhezar, errefau, errankizun, esakune, supita eta ola. Gure inguruko erdera baten ere ez dituzte izen gutxi: proverbios, adagios, refranes eta abar.

Mamia ez dute beti ore berekoa. Ala dio Lafittek: “Badira denetarik: zenbait ditxo hutsak dira; bertze batzu zirto jostagarriak edo berdin gaixtoak; baina sakonak ere badira, zuhurtziaz beteak, esperientziaz (zuberotarrak athunez erran lezakete) orratuak, dena jakitate eta konseilu balios; zombait arruntak izanik ere, zenbat ez dira mintzaire ederrez jauntziak, dena itxura bizi, punta xorrotx, uste gabeko ohar pollit”.

Bai, mota guzietakoak badira bertsularien lagunek egin duten milla eta irureundik gorako bilduma onetan. Guztiak amairu buru edo gaitan banatu dituzte: Jainkoa, zeru, fede; adimendua eta zuhurtzia; lagunartea; etxea, lurra; familia, bizia; bihotza, amodioa; dirua, ontasuna; lana; jan-edanak; gorputza, aroa, sasoinak; abereak; herriak. Beste bi buruak esaera zarrekin zer-ikusirik gabekoak dira: euskerazko erran molde jatorrez eta asmakizunez osatuak.

Atsotitzen sailletan emen denetarik dugula diogunean, zera esan nai dugu: badala bilduma onetan ditxo utsa danik; badala zirto jostagarriak eta gaixtorik; baiñan bai zuurtasunez beteriko esaera sakonik ere. Josta naia, inguruan gertatzen eta ikusten diran gauzei irripartxo begiratzea, euskaldunak bere-berea duela dirudi, nork bere buruaren eta lagun urkoaren lepotik farratxoa egitea utzi gabe; eta alderdi ori erakusten dute gure esaera zar askotxok. Olakoxe gogaldia darie, esterako, onako esaera zarroi:

—Guk oilo duguneko, ostirale.

—Nehork ez hil nahi, zahartu guziek.

—Otsoak jan, ala artzainak jan, bildotsarentzat berdintsu.

—Deus ez duena, balu, emaile handi.

—Ezkont-eguna, aise izanaren biharamuna.

—Hamalu ofizio, hamalau miseri.

—Langile txarraren eskuan, tresna guziak txar...

—Han ere ogia ez da iguzkitan erretzen...

Beste esaera asko seriotasun andiagokoak eta zer auznartu geiego ematekoak ditugu:

—Bizia laburra da, baina zorigaitzak luzatzen.

—Egia latz eta garratz.

—Mihiak ez du hezurrik hausten, baina bai hautsarazten.

—Ez da nehor gizon sortzen, bai gizontzen.

—Ez du diruak egiten gizona.

—Dirua, mutillik hoberena eta nagusirik txarrena.

—Indarka ez da lan onik.

Zarren atzera begira egotea eta gazteen amets utsetan eta geroko itxaropenak ematen bizitzea ere poliki jorratuak daude onako onetan:

—Zaharrek: Atzo, atzo, atzo! Gazteek: Etzi, etzi, etzi!

Eta psikologi-lege jakiña dugu onako beste onetan:

—Ahantzi nahi denaz, beti orroit.

Liburutan ageri izan dan euskal-esaera zarretan anziñakoenetakoa len esan dugu zein dan: *San Simon eta San Juda, negua eldu da*. Emen gure egunotan kanta batean entzuten dan bezala eman digute: Joan zen uda, negua elduda”. *Joan zen uda* ori gure egunotako olerkari baten eranskiña da, eta bere jatorrean utzi balute, obe. (Erdaldunek, ulertzen ez zutelarik, “Neguel duda” ere idatzi zuten iñoiz).

Esaera bakoitzaren jatorririk ere ez dugu bilduma onetan aurkitzen. Ez zen ori biltzailleen asmotan sartu. Eta iñoiz beren euskerara moldatzeko edo aurrintzeko ikutuxoren bat egin badiote, ez diegu guk ortik pekatu-rik ezarriko. Euskalerrian bertan ere ez dira alde guztietan berdin entzuten. Antziñe- netako batzuentzat jantzi berritan agertzea mesedegarri baizik ez da. Gaurkoagotuz, ulergarriago egiten dira. “Otsoaren aorean, okelea bere on” esan zuen 1596ko bildumak orduko Bizkaiko euskeran. “Otsoaren ahotik ixtar bat ere on”, idatzi zuen ori bera Oihenartek. Biek gauza bera diote. Baiña gaurko euskaldunentzat argi-ago dago. Oihenarte-rena. Biak daude jator, baiña gaurko euskaldunontzat Oihenartek emana argi-ago. “Lehia gaitza berantgarri” idatzi zuen bere egunetan Oihenartek. Arbelbidek bere liburue- tako batean “presa soberania berantgarri” egin duenean, ez dut uste esaera zar orrek jatorrasunik ez argitasunik irabazi duenik.

Gure biltzailleek ez dut uste olako pekatu-rik egin dutenik. Ikutuxorik egin badute, ez dute egin jatorrasunaren ez argitasunaren kaltetan.

Bertsolarien lagungarritzat egin duten ezker- o, bilduma onetan agian usteko genuen bertsozko esaera batzuk aurkitzea. Norbaitek esango du emengo esaera geienak bertso-tankerakoak dirala:

—Umeen zentzuna,

etxean entzuna.

—Geroa, alferren leloa.

Olakoexek dira asko. Eta egia esan, bada bertso itxura andiagoko eta luzeagorik, bilduma onetan. Ona bat:

—Sabaiak hotzak eta pentzetan izotza,

Martxo idor, non duk ba bihotza?

Ttipiarentzat hor da

sasoin bat zorrotza.

Primadera, urrun zak

neguaren latza...

Oso gutxi bada ere, bazan olako bertsozkorik 1596ko esaera bilduman. Baiña bertso utsetan egindako esaera bildumarik ez dugu gure literaturan, gure inguruko erdaldunek dituzten bezala. Gure auzoko literaturak aberatsagoak ditugu olakoetan. Gaztelako erderan ba dira bi idazle, bertsozko zuhur itzen egille diranak: Alonso de Barrios eta Rabi don Sem Tob arabear- tarra. Bata, Alonso, amaseigarren mendekoa, eta bestea amalaugarrenekoa. Alonsok, sorta bat egiñik, erri-esaeren antzeko mordoa eman zuen bertso- tan. Eta bestearena esaera laburreko sermoi luzea da. Ez bataren ez bestea-

ren esaerak ez dira, jakiña, erriaren aotik jalkiak, egillek asmatu eta ala mol-datuak baizik.

Gure artean ez da olako esaeren idazlerik sortu. Baiña ba dugu, euske-raz ere, *Erran zaharren kantua* deritzan bat. Egillearen aipamenik, guk beintzat, oraindio ez dugu aurkitu. Nola nai ere, erri-esaerez, benetako erri-esaerez osatutako lana da. Bertsolarientzat egindako liburu batean sartua izatea merezi zuela uste dut nik. *Kantuz* izeneko kanta-liburuan dator eta gaur zabal dabil gure artean. Esaera zarrak, bertsotan, elkarren gainka ematen ditu:

Itsasoak, bistan da, ez du adarrik,
ez eta gaztanberak erdiko hexurrik;
nehoiz ez da ikhusi su gabeko kherik,
baina ez daite juzga deus itxuretarik.

Duenak azer bipher emaiten ohi du,
ez da behar ixtupa suari hurbildu;
tripa hutsari ez da emaiten konseilu;
barrur egonez norbait noiz zaitzu arraildu?

Ez ar siminoari sino erakhusten;
orotan jaunen jaunak dirade kausitzen;
arbola fruitutarik dugu ezagutzen;
pozoinek osasuna maiz dute sendatzen.

Eta bere buruari farra egiñez ona nola botatzen duen azken bertsoa:

Gauzarik hoberenak finitze bat badu;
behar niz, ba, sail huntan nolazpait gelditu.
Aho hetsian ez da nehoiz fitsik sartu,
baina ez tronpatzeko behar da ixildu.

Esaera zaharren kantua egoki jarri diote izena. Gure bertsolariak olakorik egiteko gai dira, noski. Gure esaerez eta bestenez egin daiteken gauza da.

Berriz aterako dut itz zuhurren jatorriari buruzko arazoa, eta berriz esango dut euskera jator garbian moldatutako edozein izkuntzatako edozein erri-esaera euskarazkoa ere izango dala. Voltaire zarrenak diralakoei pekatu au ezarri diote: frantsesetik artuak eta euskera baldar traketsera itzuliak dirala. Julio Urkijo zanak pekatu berdiña egozten zien 1596ko batzuei; baiña auzoko erderetakoen antza dutela-ta, besterik gabe ez dago erdal-jatorria salatzerik. Irakurleak gogora beza len *La celestina* liburuko esaera bati buruz esan dudana.

Bertsolarien adiskideek ez dute Voltaire frantsesari egin zaion salakuntzarik merezi. Euskera jatorrez jantzitako esaerak eman dizkigute. Eta liburu au eskuetan erabilteak mesede egingo die, ez bertsolariei bakarrik, bai

beste euskaldun eta euskal-idazle askori ere. Eskola ederra aurkituko dute euskeraz jatorrago idazten ikasteko. Egia baizik ez da Michel, Chaho eta beste batzuk aitortu zutena: atsotizetan ditugula izkuntza bakoitzeko itz-joskerarik berezienak.

Tamalez, urritxoa da gure euskerak arlo onetan erakuts dezaken uzta. Madrilgo Real Academia Españolak, Luis Martínez Kleiser jaunak bilduta, 68.000 esaerazko bilduma ongi betea argitaratu zuen, orain dala 30 bat urte. Gu kopuru orretatik urruti gabiltz. Eta ez dugu aurkitzen J. Urkijoren jarraitzaillerik ere. Baiña lenagokoen argitaratzaillak baiño, esaera berrien billatzaillak ta aurkitzaillak bearrago ditugu.

Bien bitartean betoz gure bertsularien lagunek eskaini diguten bilduma au bezalakoak. *Zahar hitz, Zuhur hitz* auen eskaintzaillak deika dauzkagu *Hitz, Zuhurren Kantuko* asierako bertsoekin:

Othoi, denak zathozte plazaren erdira,
nere erran zuhurren gogoz ikastera.
Mendiak baino ere zaharrago dira;
arno ona ontuz doa urtherik urthera.